

# Macronek VI. Errepublikaren bidean jar lezake Frantzia

Frantziako Asanblea Nazionalerako bozak izanen dira ekainaren 11n eta 18an; hauteskunde legegileak. Inkognita bat dago oroz ginetik: Emmanuel Macronek Gobernuan lortu duen botere kontzentrazioak ekarriko al dio Legebiltzarreko gehiengoaren sostengua? 557 diputatu hautatuko dira. Anartean, Manchesterreko atentatuak bozen inguruko gaiak uxatu ditu hedabideetatik, juxtu kanpaina ofiziala hastear zenean. Halaber, Britainia Handiko hauteskunde legegileak dira ekainaren 8an. Seguritatea berebiziko gaia bilakatu da Europako estatueta hauteskunde kanpainen.



**Mikel Asurmendi**  
@masurmendi

“Ziurgabetasuna” da Frantziako solastoki politikoetan gailendu den hitza. Hexagonoa hauteskunde giroan murgilduta dago iragan udaz geroztik eta kanpaina guztietan “*incertitude*” hitza errepikatu da behin eta berriz. Emmanuel Macron presidentear Les Républicainseko (LR) kide Edouard Philippe lehen ministroa eta gobernu berria izendatu ostean, galdera ugari dira airean. Lehenbizikoa hau: nola eragingo du Legebiltzar Nazionalaren osaketak gobernu berriaren politikan?

“Erreforma” da Macronen hitzaldietako hitz nagusia. Gobernu berriko –MoDem alderdi zentristako– François Bayrou justizia ministroak horretarako “politika birmoralizatu beharra” gogorarazi dio. Macronek agindutako “moralitasunaren aldeko lege berria” eginkizun nagusietako bat da. Ezbairik gabe, gobernu berriak deontologia politikoa landu beharko du, baldin eta Macronek agindutako aldaketak beteko baditu. Lan erreforma, fiskalitatearen berrikuntzak, hezkuntza arloko aldaketak, segurtasuna eta Europarekiko elkar-kidetasuna dira presidentear berritu beharko dituen esparruak, baldin eta politika egiteko modu berria ekarriko badu Frantziako politikagintzara.

Konparazionera, egungo Lanaren legea, El Khomri legea deitua ere, 2016an ezarri zen, Manuel Valls lehen ministroa zelarik eta Myriam El Khomri Lan ministroa izaki. Aurreko gobernuaren arabera, “legea berritu zen lanaren eskubidea eta askatasun esparrua zabaldu aldera, baita enpresa eta lan esparruko eragileak babesteko ere”. Macronek Ekonomia ministro kargua utzia zuen ordurako, nonbait, legea ez zuen begi onez ikusi, baina legea horren liberala izanda, inor gutxik uste du egungo legea bere tesietatik urrun dagoenik. Edonola ere, Hollande presidentearren gobernuak ez zuen enplegu arlora espero zituen emaitzak ekarri, aldiz, legeak sindikatuen eta langileriarren kritikak jaso ditu. Bien bitartean, Macronek ez dio Hollandaren bosturteko mandatuari onospena eman, hori Eliseoko balizko teitatu berriari hariak botatzea bailitzateke.

Ezkerra ofizialek harago dauden ezkertiarren ikuspegitik, “Macron lan erreforma egitera behartuta dago gobernu berria itxuratzeko, baina funtsean, bere lege berriak ere ez luke ekarriko lan mundua berregituratzeko behar den aldaketa sakona”. Fiskalitatearen erreformari dagokionez, presidentear *Taxe*

*d’habitation* delakoa (Etxearen zerga) kenduko zuela agindu zuen kanpaina garaian. Agindu bai, besterik da gauzatzea. Erreforma horren aplikazioak hainbat oztopo aurkitu ditu dagoneko. Hots, ez dago zehazturik noiz hasiko den aplikatzen. Zein adineko zergaduni? Zergadun guztientzat berdin?

Edonola ere, Estatu Islamistak (EI) Manchesterren egindako sarraskiak seguritatearen gaia ekarri du eztabaida politikoaren lehen lerrora berriz ere. Hauteskunde legegileen kanpaina ofiziala hastear zegoenean, Macron presidentea, Edouard Philippe lehen ministro eta, kanpo harremanetarako eta Europarako ministro Jean-Yves Le Drianek bete dituzte hedabideetako lehen erroburuak eta egunkarietako orrialdeak. Ekainaren 8an hauteskunde legegileak izanen dira Britainia Handian. Theresa May lehen ministroak “Erresuma Batua terrorismo-tik babesteko” neurri berriak iragarri ditu. Britainia Handian abian da *Brexit* delakoa, alta, seguritate gaiak Europako estatu guztiak batzen ditu. Izan ere, atentatuak britaniar gobernu eskuindarra “indartu” du datozen hauteskundearen aurrean. Frantzian ere, halako atentatu bat jasotzearen beldurra ze-



## » Estatu Islamistak (EI) Manchesterren egindako sarraskiak seguritatearen gaia ekarri du eztabaida politikoaren lehen lerrora berriz ere

*Emmanuel Macron presidentea, Edouard Philippe lehen ministroa eta Kanpo harremanetarako eta Europarako ministro Jean-Yves Le Drian, Manchesterreko atentatua ezagutu berri.*

goen aspaldion, bertan horrelako atentatua izan gabe ere antzeko ondorioa ateratu daiteke. Fronte Nazionaleko (FN) Marine Le Penek altxatu du ahots disonante bakarra: “Frantzian ez da deus serioarik egin terrorismo jihadistaren aurka”.

Hedabideez harago, kanpaina kalean dago zernahi gisaz. Hautagaiak tokian tokiko arrondizamendu edo barrutietan ari dira. 557 diputatu izendatuko dira. Marine Le Penen Fronte Nazionala ez da Errepublikanoak Martxan alderdiaren arerio nagusia. Boz presidentzietan ez zen K.O. gelditu, baina puntutan galdu zuen. Gainera, bozen sistemak ez du laguntzen FN. Hautagaitza guztiek diputaturen bat lortzeko aukera “zapuztuko” diote bigarren itzulian. Diputatu edo senatari bat lortzeko LR da FNren arerio nagusia.

LR ahul dago halere. Bere hogeit hamar diputatuak begi onez ikusi dute Philippen izendapena. Bordeleko auzapeza Alain Juppe da (Juppe eta Philippe ildo berekoak dira LRn) indarrez eta nortasunez LR ordezkatu dezakeena. Oraingoz, ez da LRko inor Errepublikanoak Martxan zerrendetan. Jupperekin batera, LRko buru esanguratsu den François Baroinek dioenez, Macronek LRko hain-

bat kide bahitu ditu, baina ez du “gerra” irabaziko. LRek Macronek “erasoaldia” eutsi nahi dio, lehen rounda ekaineko lehen itzulian jokatu da.

PSko kideak ere badira gobernu berrian. Lyongo auzapez eta barne ministro Gerard Collomb ez da edonor. Macronek K.O. utzi du Alderdi Sozialista. Hollandek eta Vallsek Macroni lagundu diote zeregin horretan. Benoît Hamon da PSko ikur bakarra. Argia ematera deitua izan zen, baina itzalpean geratu da. PSko 24 diputatu Errepublikanoak Martxaneko zerrendetan daude. Honek 428 diputatugai-zen izenak aurkeztu ditu.

Le Pen ez da arerio sendoa eta LR kolokan dago. Frantzia Intsumisoaren Jean-Luc Mélenchonek Marseillako barrutian aurkeztu du bere burua. Hau da, FNren plaza nagusietako batean. Ez da alderdien liderren arteko norgehiagoka bakarra. Adibidez, Benoît Hamonek PCko hautagai Michel Nouaille sostengatu du Essoneko 1. barrutian, Manuel Vallsen aurka. Era berean, Hamonek Caroline De Haas hautagai feminista sostengatzen du Parisen, lan ministro ohi eta PSko Myriam El Khomri hautagaien aurka. Areago, EELV ekologistek eta PCFk ere De Haas sostengatzen dute.

Frantzia Intsumisoa da Errepublikanoak Martxan arerio nagusia. Mélenchonek ez omen du bere hautagaiak engainatu nahi. PCFekin zuen aliantza bertan behera utzi du. “Presidentzietarako gure programa ukitu gabe mantenduko dugu, ez dugu boza eman digun inor traizionatuko”. PCFk programako hainbat gai “apalarazi” nahi zituen.

Frantziak IV. Errepublika garaiko egoera bizi du. Europar Batasunaren proiektua orduan jarri zen martxan. Frantzia II. Mundu Gerra eta Algeriako Gerraren krisitik ateratu berria zen. NATOren barruko aliantzak finkatu behar izan zituen, besteak beste. Egonkortasunik gabeko egoera haren ondoren sortu zen V. Errepublika, Charles de Gaullek gidatua. V. Errepublika larrialdian dago egun, eta Macronek VI. Errepublikaren bidean jarlezake Frantzia. Horrek baina, erreformez harago, Konstituzioaren erreforma beharko luke. Horretarako, Macronek Frantziako Legebiltzarraren gehiengoaren sostengua beharko luke. Gobernuan lortu duen botere kontzentrazioa berresteko eta berak aldarrikatzen duen Frantzia berria martxan jartzeko. ■